



## ❖ ITURRITXO Haur txokoa gaur auzo elkarte

Latsunbeberri eta Marielutseko Iturritxo auzo elkarte haur txokoa izango da gaur, eskulanak egiteko eta jolasteko aukera. 6 eta 12 urte bitarteko umeak joan daitezke bertara. Goizeko 10:30etatik 13:00etara izango da, Iturritxo auzo elkarte. ||

## ❖ PORTU AUZOA Errealari buruzko hitzaldi-tertuliala gaur

Errealari buruzko hitzaldi-tertuliala izango da gaur Portu auzoan, auzo elkarte antolatuta. Hitzaldia Gabonetarako antolatutako ekitaldia da. Gaur, arratsaldeko 19:30etan, Portuko auzo elkarte. ||

## ❖ ERRONDA Urtezaharretako erronda egingo dute bihar

Bihar Urtezahar eguna izaki, ohiturari eutsiz, errondan ibiliko dira hernaniarrak. Arratsaldeko 17:15etan jarri dute hitzordua, plazako arkupetan; plazatik zaharren egoitzara joango dira; ondoren, 18:00ak aldera, kale bueltari ekingo diote. Txistulariak eta bertsolariak izango dituzte lagun. Nahi duenak parte hartu dezake, baserritarrez janztea besterik ez da preziso. ||

## ❖ ZAHARREN EGOITZA Urtezaharretako bingo berezia bihar

Urtea ondo bukatzeko, Urtezaharretako bingo berezia egingo dute bihar Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan, arratsaldeko 17:00etan hasita. Ostiralean berriz, Urteberriko bingo berezia egingo dute. ||

## Aitor Gorrotxategi eta Iñaki Esnal - Pelotariak

# «Txapelketa ona jokatu dugu; sasoian gaude eta horrek konfidantza ematen dizu»

Iñaki Esnalek eta Aitor Gorrotxategik Gipuzkoako Ohorezko Mailan jokatu dute datorren urtean. Bigarren Mailako Txapelketa irabazi berri dute eta berez, datorren urtean Lehenengo Mailan jokatu behar bazuten ere, zuzenean, sortu berri den Ohorezko Mailara pasa dira. Azken 11 urtetan Hernanik lortu duen mailarik onena.



Aitor Gorrotxategi eta Iñaki Esnal pelotari bikotea.

eta horrekin bakarrik pozik gaude. Eta aurten gainera Ohorezko Mailan sartu gara. Txapelketa ona jokatu dugu; sasoian gaude eta horrek konfidantza ematen dizu.

**Atzelariak behar du huts egiten ez duena, eta dominatzen badu, orduan perfektu. Eta aurrelariak jakin behar du atzekoak egindako lana aprobetxatu eta tantuak bukatzen.**

Elgoibarren jokatu zenuten igorako partidua. Nolakoa izan zen partidua?

Iñaki: Frontoia txikia eta baxua zen, aurkariek ezagutzen zuten eta guretzat desabantaila zen. Hala ere, Aitorrek kristoren partidua jokatu zuen.

Aitor: Tentsio haundiko partidua izan zen. Beste aurrelaria oso urduri zegoen...

Iñaki: Bai, eta guk jakin genuen bere akatsak aprobetxatzen.

**Eta zuek, ondo aritu zineten?**

Aitor: Egia esan, jende gutxi zegoen partidua ikusten, 30 bat lagun, baina kristoren buila zegoen, eta beste aurrelariak ere buila haundia egiten zuen eta horrek tentsioa sortu zuen.

**Ohorezko Maila sortu berria da. Nolakoa izan da sailkapena?**

Ohorezko Mailan sartu dira Lehenengo Mailan sailkatu diren lehenengo sei bikoteak, eta beste bi, promozioa irabazi dugun beste biak hain zuzen. Zortzi bikote gaude.

**Nola antolatu dute Ohorezko Maila?**

Aitor: Gipuzkoako zortzi bikoterik onenak gaude; ez dakigu nola jokatu den, lauko bi talde egingo dituzten

edo ligaska egingo den. Datorren urtean jokatu dugu, irailtik Gabonetara.

**Esperantza haundia al duzue?**

Iñaki: Bai, sasoian gaude, fuerte.

Aitor: Aurreko urteetan zorte txarra izan dugu, lesioak zirela... Aurten indartsu gaude.

**Herri Arteko Txapelketan parte hartuko duzue?**

Aitor: Nik printzipioz bai, Hernanirekin, baina Iñakik ezin du, ez baitago Hernanin erroldatua. Berria Txapelketan parte hartzeko asmoa dugu.

Iñaki: Berria Txapelketa Herri Arteko Txapelketa bezalakoa da, baina ez da prezioa herrikoa izatea, *fitxajeak* egin daitezke eta parte hartzeko asmoa dut.

**11 urte dira Hernani ez dela mailarik onenean izan.**

Iñaki: Bai, orduan ni izan nintzen txapeldun, Lehenengo Mailan, Felix Zabalarrekin.

Aitor: Bai, gero ez dira mantendu eta orain arte bigarren mailan jokatzeko aritu dira.

**Zein da zuen estrategia?**

Aitor: Nik dominatu eta Iñakik bukatu; ahal bada pelota zailak jartzen dizkiot beste atzelariari, hark pelota errazak jarri eta Iñakik errematatzeko, errematzen artista baita.

Iñaki: Aitorrek egurra ematen du atzean eta nik pelota ondo harrapatzen badut... Eta keinuean oso ondo moldatzen gara.

**Nolakoak izan behar dute atzelari eta aurrelari onak?**

Iñaki: Atzelariak behar du huts egiten ez duena, eta dominatzen badu, orduan perfektu. Eta aurrelariak jakin behar du tantuak bukatzen, atzekoak egindako lan guztia aprobetxatu eta tantuak bukatu egin behar ditu. ||

### Urte asko pelotan jokatzeko?

Iñaki: Nik mordska bat, 34 urte bai baititut; Aitorrek berriz, 21 urte ditu eta bere hoberenean dago.

**Eta elkarrekin jokatzeko denbora asko?**

Aitor: Iñaki orain arte profesionala aritu da, orain hasi da gurekin jokatzeko. Duela pare bat urte jokatu genuen Gasteizen partiduren bat; eta irailean Aginagan jokatu dugu, bertako txapelketa.

**Gipuzkoako Txapelketan Bigarren Mailako Txapeldunak zarete; berez Lehenengo Mailan jokatu beharko zenuteke datorren urtean baina sortu berria den Ohorezko Mailan jokatu duzue. Ohorezkoan 8 bikote ariko zarete, Lehenengo Mailatik pasa diren 6 eta promozioa irabazi duzuen beste 2. Pozik egongo zarete, ezta?**


Iñaki: Helburua genuen Lehenengo Mailara igotzea

Aseguruak  CATALANA OCCIDENTE



Atzieta 30  
Telf - 943-332440  
Fax - 943-556602

**TITAN-ETXE**  
TABERNA  
ASTEBURUETAN AFARIAK



Larramendi, 15  
Tel.: 943 55 00 46

 **gse**  
Asesoreak

**Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua**

Kardaberaz 40 behea  
Telfnoa: 943 55 02 54 - Faxes: 943 33 58 01  
www@gseasesores.net

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
☯ FARMAZIAK ● Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Aldaketa gutxi. Hegohaizea ibiliko da eta temperatura berdina izango da. Goiz partean laino ugari eta tantaren bat botako du akaso. Arratsaldean ostarteak zabalduko dira.  
**BIHAR** Urtea laino askorekin baina euri gutxi agurtuko du. Temperatura ez da asko aldatuko eta hegoaldeko haizeak indarra hartuko du. (euskaime)

## ◆ SASKIBALDIA

# Lagunarteko torneoaren bigarren jardunaldia gaur

Hernaniko saskibaloiko hiru taldeak partidu bana jokatu zuten atzo; gaur beste hainbeste egingo dute.

HERNANIKO saskibaloiko taldeak Gabonetako lagunarteko torneo jokatzeko ari dira egunotan. Atzo partidu bana jokatu zuten; gaur beste hainbeste egingo dute, talde gonbidatuen aurka eta lehiaketarik gabe.

### Bina partidu hernaniarrek atzo eta gaur jokatzeko

Lagunarteko torneo da eta ez dago eliminatoriarik, partiduak jokatzeko eta gozatzea beste helbururik ez dute. Atzo kadete, jubenil eta senior taldeek partidu bana jokatu zuten. Gaur ere beste partidu bana dute jokatzeko, arratsaldeko 16:15etan hasita. Kadeteetan, Hernani KEK Atletico San Sebastian taldearen aurka jokatu du; jubeniletan, Hernani KEK Easo taldearen aurka egingo du, 18:00etatik aurrera; eta seniorretan, Teklan HKE Inter taldearen aurka ariko da, arratsaldeko 19:45etatik aurrera.



Lagunarteko partiduak jokatzeko ari dira hernaniarrek.

### Gabonetako etenari aurre egiteko

Gabonetako torneo egiteko badago beste arrazoi bat: Gabonetako bi asteko eten luzeari aurre egitea. Rojelio

entrenatzailearen esanetan, «bi asteko etena, jokatu gabe, askotxo da, batez ere seniorrentzat, ez baitute astirik bestela entrenatzeko».

Horregatik, besteak beste, antolatzen dute urtero torneo. Talde gonbidatuek, plaka bana eta merienda jasoko dituzte ordainetan. ||

## ◆ FUTBOLA

### Labaien Torneoa jokatu da bihar Zubipen

Aurten 38garren aldiz jokatu da Labaien Torneoa. Aurtengoa bihar, urteko azkeneko egunean, jokatu da, arratsalde partean. 16:00etan CD Hernani ariko da Kostkasen aurka; 17:00etan Kostkas ariko da Real Sociedad taldearen aurka; eta 18:00etan, Hernaniko taldea ariko da Real Sociedad taldearen aurka. Partiduak 45 minutukoak izango dira eta 6 penaltiko txandak izango dira. ||

## ◆ ERREMONTA

### Biharko partiduak

Bihar, urtea ondo bukatzeko, erremonte partiduak izango dira Galarreta frontoian. Tejedos Aoz Torneoaren barruan Altuna II eta Eizagirrek

jokatuko dute Urriza eta San Miguelen aurka; aurretik Martinez II eta Martinez I ariko dira Zulaika eta Zubizarretaren aurka; jaialdiko hirugarren partiduak Ezkurra eta Iriartek jokatu dute Zeberio II eta Urrutiaren aurka; eta azkeneko partiduak Bereziartua eta Urkok jokatu dute Matxin III eta Gazteluren aurka. Arratsaldeko 16.00etan hasiko da jaialdia. ||

## ◆ GOIZUETA

### Aimar Olaizola pelotariari omenaldia egingo dio bihar Goizuetako Udalak

Bihar Aimar Olaizola pelotaria omenduko du Goizuetako Udalak. Bertan, dantzariak, korua, aureskua, opari banaketa eta Alkatearen eta pelotariaren hitzak entzun ahal izango dira. Herriko plazan, ilunabarreko 20:30etan. ||

## ◆ GARIN TABERNA

### Futbolin partidak gaur

Futbolin partidak izango dira gaur Garin tabernan, 19:00etatik aurrera. Antolatzaileen esanetan, Unaili-Presi, Txusta-Imaz, Jonander-Dani eta Goiko-Gorka bikoteei 2 puntu kenduko dizkiete ez badira agertzen. ||

## ◆ MUSIKA

### Amaia Ortega 'Inalanbrikak' antzezlanean kantari gaur Donostian

*Inalanbrikak* antzerkia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna izango da gaur Donostian. Lehenengo kontzertua eman baino lehentxeago sortzen diren beldurrez eta estuasunez hitz egin eta kantatuko dute protagonistek, tartean Ainara Ortega hernaniarrak. Emanaldiko musikaz Iñaki Salvador musikaria arduratu da. Gaur, *Las Inalámbricas*, gazteleraz, 17:00etan eta *Inalanbrikak*, euskeraz, 19:30etan; biak Victoria Eugenia antzokian. ||

## ◆ AMHER

### Mugetan hil diren pertsonak gogoratzeko kontzentrazioa gaur Donostian

AMHER-SOS Hernanik dei egin du gaur Donostian egingo den kontzentrazioan parte hartzera. Bertan, mugetan hil diren pertsonak gogoratuko dira. Kontzentrazioa gaur, Donostiako Gipuzkoa Plazan, arratsaldeko 19:30etan. ||

## ◆ GALDUTAKOAK

### Monopatin berri-berria galdu zuten larunbatean Latsunbeberri

Joan den larunbatean monopatina galdu zuten Latsunbeberriko futbol zelaian. Monopatina berri-berria da, Oxelo markakoa eta beltz kolorekoa da gehientsuena. Aurkitu duenak, deitu 605 763 424 telefono zenbakira. ||

## ◆ ASTIGARRAGA

### Haurrentzako jolasak gaur

Haurrentzako tren txikia eta pedaldun ibilgailuak izango dira gaur, goiz eta arratsalde, Astigarragako Barandiaran plazan, Astiko merkatarien elkarteak antolatuta. Eurria egingo balu, pilotalekuan izango dira jostailuak. ||

## ◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Emakume arduratsuen adineko pertsonak zainduko lituzke, etxeko lanak egin edo gauak pasa erresidentzian. Informeduna. Deitu: 664 336 906.

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxeko konponketak eginen dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta personalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76  
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)